

[susa](#) | [literaturaren zubitegia](#) | [literatur emailuak](#) | [armiarma](#) | [klasikoak](#) | [aldizkarien gordailua](#) | [basquepoetry](#) | [euskarari ekarriak](#)



[kritiken hemeroteca](#)

7.423 kritika

- [Honi buruz](#)
- [Bilaketa](#)
- [Hasiera](#)

Azken kritikak

« [Nobela beltza](#) | [Zientzia fikzioa](#) »

Urrutira Bidalia / [Li Bai](#) (*Albert Galvany, Pello Otxoteko*) / Alberdania, 2005

Hunkialdia Felipe Juaristi / *El Diario Vasco*, 2005-06-17

Poeta gutxi da munduan, Li Bai bezain maitatua izan denik. Jendeak oso maitea zuen oso eta poetek ere bai: Ruben Dariok berak honako poema hau eskaini zion: “Maite nazazu txineraz, Li Tai-Peren txinera ozenez “. Ruben Darioren Li Tai-Pe hori Li Bai da edo Li Po, Txinako poetarik handienetakoa, bertakoez diotenez. Denboraren ahaleginez, haren bizitza benetakoa mito bihurtzeraino iritsi zen. Horregatik da hain zaila haren bizitzaren ilun-argiak zehaztea. Tang Enperadoregoaren garaian bizi izan zen (618-907). Garai hori oso aberatsa izan zen Txinarentzat. Etsaiak mendean hartu zituen, besteak beste, eta artea eta literatura bultzatu ziren.

Li Bai taoista librea, alderraia askotan, sentsualtasuna landu zuen bere poemetan. haren hitzei bizia darie, alde guztietatik. Ez zen gizon begira zale soilik; bazekien bizitzak eskaintzen zionetik esku beteka hartzen. Ardoari poema asko eskaini zizkion: “Arren ez niri koparik uka/ Udaberriko haizeak irribarre kantua dakar”. Udaberria, irribarrea, edaria, gaiak bainoago, bizitzaren aurreko joerak dira. Edariak barnea alaitzen du; alaitasunak irribarrea dakar; eta begien aurrekoak udaberria dirudi; udaberri gizatiarra, adiskidea, maitalea Hori da Li Bairen logika, logika sinplea itxuraz.

Izan ere, Li Bairen poemetan sakontzen badu, konturatuko gara izugarritzko lanketa egina dagoela, ez dira bat-bateko bertsoak, gogoeta luze eta sakonaren ondorio baizik. Li Bai bizi izan zen garaian erabat aldatu zen poesia txinatarra. Haren hitzak harremanetan daude beste arte klaseekin. Poesia pintura da; eta pintura, poesia. Poesia ez da arte soila, bizimoduaren isla ere bada: lasaitasuna, apaltasuna, barne oreka Dena goi mailako mundu batekin lotzeko egina; zerurainoko sokak balira bezala. Irakurri ondoren, itzulpenak itzulpen, halako hunkialdia sentitzen du irakurleak, bere burua ere hegan jartzerainoxe.

Azken kritikak